



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2009ko azaroaren 9a, astelehena

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:05

**BUKATZEKO ORDUA:** 19:30

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **AZTERGAI ZERRENDA**

**GAI BAKARRA:** Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.



## **ESAN-EGINAK**

### **GAI BAKARRA: ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2010EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2009ko urriaren 5 eta 21eko eta azaroaren 5 eta 9ko Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzaileetan diktaminatu da era honetara: 2009an indarrean dauden ordenantza fiskalak eta beren eranskinetako zerga-tipo eta tasak 'izoztu' egingo dira, honako salbuespenekin:

- 1.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen zergaren kuotak zehaztu eta arautzen dituen ordenantza fiskal berria onartzea proposatzen da, eta bertan nabarmentzekoa da elbarrien izenera matrikulatutako ibilgailuen salbuespenak nola arautu nahi diren: salbuespena aplikatuko da elbarriak berak, eta berak bakarrik, erabiltzen duen ibilgailuen kasuan edota elbarriren bat garraiatzeko erabiltzen den ibilgailuaren kasuan, elbarritasunak irauten duen bitartean; elbarritzat joko da legez izaera hori duenak eta %33ko minusbaliatasuna edo handiagoa duena.

Ibilgailua elbarri baten garraiorako erabiltzen dela ulertuko da elbarritasunaren kalifikazioaren erresoluzioan, %33ko elbarritasuna edo handiagoa kreditatzeaz gain, "Garraio publiko kolektiboak erabiltzeko mugikortasun zailtasunak daudela zehazteko baremoa" izeneko atalean A, B edo C letrak azaltzen direnean edo, bestela, 7 edo handiagoko puntuazioa azaltzen denean.

Eranskinean jasotako tarifak ez dira handituko 2010ean; 2009koak aplikatuko dira.

- 2.- "Udalaren erabilera publikoko lurra okupatzea, merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, asnillak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuk jarritz" izeneko tasari buruz, honako araua gehitzen da tarifen gestiorako: udal jabari publikoaren okupazioa pisuzko arrazoirik gabe luzatzen bada Udalak baimendutakoa baino gehiago, aplikatu beharreko tarifak %100 handituko dira.
- 3.- "Udal erabilera publikoko lurra okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean" izeneko tasan makina banatzaile mota guztietarako honako tarifa ezartzea: 25,00 euro metro karratu edo frakzioko eta urteko.
- 4.- Ordenantza Fiskal bat onartzea proposatzen da, kutxazain automatikoen eta irismena bide publikotik duten salmenta-makinen instalazio eta funtzionamenduaren tasa arautzeko; tasa horren zerga-kuotak hauek izango dira:
  - a) Fatxadetan finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatik: 330 €/urteko.



- b) Irismena bide publikotik duten produktuen salmenta automatikorako makinak instalatu edo funtzionamenduan edukitzeagatik: 40 €/metro lineal bakoitzeko eta urteko.
- 5.- “Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin” izeneko tasaren tarifak hauek izango dira:
- Hondartzako aparkalekua eta inguruak (turismoak):
- Maiatzaren 1etik irailaren 30era, biak barne, astelehenetik igandera, 10:00etatik 20:00etara, 1 €/orduko edo frakzioko.
- 6.- Zabor eta hondakin solido urbanoen bilketa-zerbitzuaren tasari dagokionez, a) epigrafearen tarifa hileko euro 1ean handituko da eta urteko 88,80 eurotan geratuko da; b), c), d), e) eta f) epigrafeetako tarifak hileko 2 eurotan handituko dira eta honela geratuko dira, hurrenez hurren: 213,60 €/urteko; 300 €/urteko; 314,40 €/urteko, 462 €/urteko eta 200,40 €/urteko; g), h) eta i) epigrafeetako tarifak, berriz, hileko 3 eurotan handituko dira eta honela geratuko dira, hurrenez hurren: 415,20 €/urteko, 367,20 €/urteko eta 948€/urteko.
- 7.- Orioko Udal Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak %3 handituko dira.
- 8.- Udal Kanpina erabiltzeagatik tarifak %4 handituko dira.
- 9.- Udal Kiroldegia erabiltzeagatik tarifak %5 handituko dira.
- 10.- Azurza etxeko tutoretzapeko apartamentuak erabiltzeagatik tarifak ez dira handituko 2010ean; baina proposatzen da honako hobariak aplikatzea erabiltzaileei, lan-errentengatik dauzkaten diru-sarreraren arabera:
- Erabiltzailearen pentsioaren kopurua hileko 750 euro baino gehiago ez denean, hileko 200 euroko hobaria aplikatuko zaio.
  - Erabiltzailearen pentsioaren kopurua hileko 751 eta 1.100 euro artekoa denean, hileko 100 euroko hobaria aplikatuko zaio.
  - Erabiltzailearen pentsioaren kopurua hileko 1.100 euro baino gehiago denean, ez zaio hobaririk aplikatuko.
- 11.- Atal berria sortzen da, 4.11 zenbakiduna, Iturriaga Jauregian dagoen Done Jakue bidearen Interpretazio Zentroaren erabilerari dagokiona; aplikatu beharreko tarifak hauek izango dira:

Euro/pertsonako

- 10 urte arteko haurren sarrerak.....1,50
- Erretirodun eta pentsiodunen sarrerak..... 1,50
- Helduen sarrerak..... 2,00
- Taldeentzako sarrerak (gutxienez 15 lagun)..... 1,00



12.- Proposatzen da, azkenik, 4.12 zenbakidun atal berria sortzea, udaletxeko teilatu azpiko gelaren erabilerari dagokiona; aplikatu beharreko tarifak hauek izango dira:

- Egun bakarrean erabiltzeagatik: 19,75 €
- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik: 13,45 €/eguneko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2009ko urriaren 5ean eta 21ean eta azaroaren 5 eta 9an egindako bilkuretan emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteke lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

**e) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela, alde batetik, ez dagoelako ados zaborren eta hondakin solido urbanoen bilketa-zerbitzuaren tasaren tarifetarako proposatutako %10 inguruko gehikuntzarekin eta, gainera, ez dakiela nola gestionatzen diren zaborrak, daturik ez daukalako; bestetik, adierazten du ez dagoela ados, ezta ere, Udal



**ORIOKO UDALA**  
**ORIO (GIPUZKOA)**

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/11/09

Kanpinerako proposatutako tarifekin, bere ustez tarifen gehikuntza hori ez delako behar bezala aztertu.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**